

ZABALO-ENEA BASERRIA: SAGARRAREN PARADISUA

Iñigo Goñi Iradi

Gure herriak dituen txoko ederren artean Jauregi bailarak toki bat badu. Hernani, Urnieta eta Lasarte herriak elkartzen diren gunean, Santa Barbararen magal ttipian, bertako baserrien kokapena ikus daiteke behatoki dotoreetatik. Baserri guzti hauetatik ezkutuenetakoa dugu Zabalo-Enea.



Zabalo-Enea baserria, Jauregi bailarako sagarraren paradisia

Zabalo-Enea baserrian aurki ditzakegun sagarrak Euskal Herri guztiko sagarrak hoberenetakoak direla, hoberenak ez badira, esan genezake beldurrik gabe. Gure inguruetan egiten diren sagar lehiaketen emaitzek hori diote behintzat. 2001. urteko lehen sari guztiak gehitu behar zaizkie aurreko

urteetan lortutakoei. Bagenekien lehenagotik ere gure Hernani herria sagardotegi eta sagardo mailan punta-puntan zegoela, produktuaren kalitate handiari esker, baina orain sagardoari sagarra bera gehitu behar zaio. Kalitatezko sagarrak ditugu-eta gure artean.

Iradi sendiak 1918. urtean eraikia da baserria, eta orduko garaietatik familia hau izan da haren ustiakuntzaz eta zaintzaz arduratu dena. Urteetan barrena, 70 urte luzez, inguru hauetako edozein baserriren antzera, ohiko baserria izan genuen, ezerk besteengandik bereizten ez zuena. Abeltzaintzaren eta inguruko soroen laborantzan jardunez bizirik irauten zuena.

Hala ere orain dela hamabost urte gauzak aldatzen hasi ziren. Bertan zeuzkaten ganadu buruak kentzea erabaki zuen **Manuel Iradik** eta Zabalo-Enearen aro berri bat hasi zen. Ordu arte zeharo ezezaguna zen baserria entzutetsu bihurtzen hasi zen jendearen artean. Arrazoa, oso sinplea: frutagintzaren ustiaketa eta, batez ere, honen barruan, sagarrarena.

Manuel Iradi herriko lorazaina da eta 1996. urtean Tolareko kofrade aukeratu zuten. Zabalo-Enea baserrirako biderik hoberena frutagintza dela ez dauka dudarik.

"...Lanbide honek jai egiteko aukera gehiago eskaintzen dizu, ez da egunero bere gainean egon behar den lanbidea, abeltzaintza bezala, esaterako. Lanordu gutxiago sartu behar dira, eta, gainera, disfrutatu egiten dut, aukera hori eskaintzen dit gustatzen zaidana egiteko. Bizitzeko adina ez du ematen baina laguntza bat da..."

Baserriak 32 mila metro koadro ditu lurretan, guztiak fruta zuhaitzez landatuta. Zuhaitzek beraien artean osatzen duten simetriak eta lur hauei ematen dioten itxurak paisaia polita osatzen dute. Denak bata bestearen ondoan zuzen-zuzen lerrotuta; aldapa malkartsu eta leku lauagoen uztarketa marra lauso batek bereizita.

DATU ESANGURATSUAK

Sagarrondoak dira 2.500 frutondo zuhaitza gehienak, baina hauez gain madariondoak (udareondoak), hurrondoak, kiwiak, gereziondoak ere badira. 32 mila metro koadro horietatik hamar mila mahaiko edo jateko sagarrondoek betetzen dute, beste guztia, berriz, sagardotarako erabiltzen den sagarrez dago. Klase guztietako sagarrak eta aldaerak daude, guztira 80 mota, hauetatik 30 jatekoak eta 50 sagardotarakoak.

Frutondo nanoak daude, batetik bestera 4 x 1,5 m-ko distantzia utzita landatuak; hazitik datozen zuhaitzek (frankoek) 8 x 8 m-ko distantzia dute batetik bestera. Ekoizpena 40 tona ingurukoa da gaur egun, baina nabarmen igoko da hurrengo urteetan, 60 tonara iritsiko da-eta.

Sagardotarako erabiltzen diren sagarrondoak landareak Gipuzkoako Foru



Manuel Iradi Zabalo-Enean, sagarrondoak artean, mimo handiz zaintzen dituenak

Aldunditik ekartzen dira. Mahaiko sagarren landareak, berriz, Frantziatik ekarri eta etxean txertatuak dira. Hainbeste sagar motaren artean zaila da onenak edo batzuk goraiatzeari, baina, hala ere, baten bat nabarmentzekotan, aipatu beharrekoak dira honako hauek: Urreztei, Elstar, Reinetak, eta hauen artean, noski, Errege sagarra, Zabaloenea eta Bella Boskop. Udareetan, berriz, Konferentzia eta Decana comicius dira aipagarriak.

Badira beti gure aitona-amonei entzun dizkiegun Pelestina, Manttonia, Urtebia edota Txalaka ere. Salmenta zuzena Gipuzkoan Behemendi azokan eta Hernanin Miner janari dendan egiten du Manuel Iradik. Hainbeste mota edukitzeak aukera ematen dio lehiaketetan parte hartzeko eta ezin esan sariei dagokionez gauzak gaizki joan direnik Zabalo-Enea baserrian. Donostiako Santo Tomas ferian lau bider irabazia da, eta Santa Luzia egunean ere, Zumarragan, beste lau aldiz irabazia du lehen saria, beste askoren artean.

biltzen da, bi bildualditan. Erakusketarako sagarra, berriz, bana-bana eskuz, mimo handiz, biltzen da; lurrera eroriz gero, ez du erakusketarako balioko, ubeldura moduko bat aterako zaiolako. Dozena bat lagun aritzen da bilketan, eta lan eskerga hori arinago egiteko Manuel Iradiren arreba nagusiaren lana, Agustinarena hain zuzen, garrantzi handikoa izaten da.

Sagar mota batzuk besteak baino interesgarriagoak dira, emankorrakoak.

Batzuek erraz harrapatzen dute gaitza, besteek, aldiz, ez; sagarrak gaixotasun gutxikoak eta emankorrak izatea da interesgarriena, eta bi faktore hauek elkarrekin doaz gainera. Esaterako Urtebi txikia eta handia, Moko eta Merabi dira onak alde honetatik.

Gipuzkoan sagar gehien ekoizten duen herria Hernani da ezbairik gabe, eta alde handiarekin gainera. Bide honetatik jarraitu nahian dabilta lanean Zabalo-Enea aldean.



Dena ongi eta aurrera ateratzeko Manuel Iradik familiaren laguntza estimagarria izaten du beti. Sagarra bildu edo saltzeko jendea behar da. Sagardotarako sagarra kixkiarekin

Bertara bueltaxka egin besterik ez dago sagarrak bizirauteko zer leku eder bilatu duen konturatzeko: bere paradisua aurkitu du Hernanin.

HIRU IZEN EDER GAUZA BERA ADIERAZTEKO

Hernanin jaio eta bizitza guztia bertan emandakoa da, eta izen kurioa du benetan. Leku batzuetan Errege sagarra, beste batzuetan Errezil sagarra, eta, Errezilen bertan, gezurra badirudi ere, Ibarbi sagarra.

Euskal Herriko hainbat plazatan agerraldi anitz egiten ditu abenduan, eta miretsia eta fama handikoa dugu denetan ere. Txukun-txukun distira handiz aurkeztu ohi dute, eta lilura horren atzetik lan handia dagoela berehala antzematen da. Gurekin Zabalo-Enea baserrian elkartu den Errege sagarra Ordizian urteko azken azokako garailea izan genuen; bere inguruko sagarrek ere lehenengo sari gehiago irabazi dituzte aurten. Paraje zoragarri honetan, Jauregi auzoan dagoen baserri polit honetan, jaso gaitu eskuzabal, eta solasaldirako prest agertu gara bai gu bai bera.

Kaixo Errege sagar... Ez dakit zuzenak diren izen-deitura hauek...

Lasai, lasai, zuzen esan duzu nire izena. Hernani alde honetan, Beterrin, Errege sagarra esaten zaigu eta zitzaigun garai batean. Goierri aldean ere izen honekin ezagutzen gintuzten. Errege egunean opari bezala saltzen gintuztelako hartu dugu Errege sagar izena, iraupen handiko sagarra izaki errege egun arte irauten baitugu.

Goierri aldean, orain, Errezil sagar esaten digute lehiaketetan, eta izen hau nagusitzen ari da; jatorriz Errege izena daukat halere. Oso kurioa da Errezil herrian Ibarbi sagarra deitzen nautela eta ez Errezil; gustatzen zait izen hau.

Nolakoa da zure hazte prozesua?

Udaberri aldera beste sagarrekin batera hasten nahiz loratzen, polinizazioaren ondorioz, gutxinaka; polinizazio ona izateko beste sagarrondo batzuk, beste klase batzuetakoak, eduki behar ditut alboan, egoki eta sano-sano helduko naiz horrela. Nire formazioa ez da luzea izaten eta ez dut hilabete batzuetako biziraupena besterik. Gero nire oinordekoak etorriko dira, hurrengo urtean.



Hainbat erakusketa eta lehiaketetan parte hartu dute Zabalo-Eneako sagarrek eta sariak irabazi ere

Zergatik uste duzu zarela hain sagar ospetsu eta miretsia?

Nire izaeragatik dela uste dut, bertako sagarra naizelako; gainera denetarako baliagarria naiz, mahairako, konpotarako edota egosteko.



Kontatu zure bizitzako pasadizo gehiago...

Zer esango dizut bada! Nire bizitzan eta edozein sagarren bizitzan oso garrantzitsuak dira sagarrondo nanoak edo ipotxak. Zergatik? Nire formazioan lana egiten duenarentzat hobe da horrela, eskulana askoz errazagoa baita sagarrondo ipotxekin. Sagarrondoari uzten badiozu dena hartzen, sagar asko eta kalibre baxukoak, hau da tamaina txikikoak, irtengo gara.

Egin behar dena da ni argitu, aklatatu, eskuz; horrela, anaia gutxiago izango gara baina handiagoak, eta lehiaketarako, salmentarako erakargarriagoa izango naiz, handiagoa izaki, denetarako hobe aлегia. Sagarrondo nanoak berehala hasten dira sagarra ematen; hemen dugu etorkizuna, sagarrondo nanoetan.

Eguraldia, zaintza eta era honetako beste faktore batzuk garrantzitsuak dira zuentzat, ezta?

Dudarik gabe, garrantzitsua da udaberrian eguraldi ona egitea, loratze garaia baita. Loraldi betean gaudenean eguraldi txarra egiten badu, loraldi guztia izorra

diezaguke. Izotza da, ezbairik gabe, kaltegarriena, eta egitekotan, 0 gradu ingurukoa izatea hobe; hotzagoa botatzen badu, akabo.

Fruta guztiak ura gara eta komeni da udan noizbehinka euri dezente egitea. Harria edo kazkabarra botatzen badu, harri honek mailatu egiten nau eta itxura kaskarra hartzen dut.

Dotore ibiltzea gustatzen zaizu, orduan?

Formazio txukuna izatea gustatzen zait niri. Gure formazioan adarrak behealdera jarri behar dira, izerdiak hasieran goitik behera joan behar du eta, gero, atzerakada, behetik gora egingo da.

Sagarrondoari berez adarrak gorantz hazten zaizkio eta izerdiaren atzeraldia ere behetik gora egingo du, hau ez da honela egin behar, eta honexegatik behar dut zaintza berezia. Adarrak beheraka jarri behar dira loreetako botoiak berehala hazten baitira horrela; adarrak gora begira baditugu, berriz, nekez aterako dira botoi horiek.

Botoiak beharrezkoak dira gu hazteko, baina jendeak ez daki hori; oso garrantzizkoa da ni sano eta ongi ateratzeko.

Ordizian lehenengo saria irabazi zenuen, zer esan nahi du honek zuretzat?

Lehiaketak egun batean erabakitzen dira, baina horren atzean urte osoko lana egiten dute nirekin; lan hori saritzen dutela ikustea gauza handia da. Niretzat baino gehiago, ni zaindu nautenentzat da saria garrantzitsua, hurrengo urtean ni bezalako beste sagar batzuekin lan egitera animatu eta gogobete egiten ditu. Ni prezio onean saltzeko ere balio dio jabeari –irribarrea irten zaio gure gonbidatuari-.

Baserriak hartu duen norabidea ikusita, zer-nolako etorkizuna du sagarrak?

Uff! Oso eskasa, ez dago etorkizunik, bestela jende gehiago arituko litzateke sagarra lantzen. Lehen, garai batean, baserri guztietan egoten zen sagastia, edari bezala sagardoa erabiltzen baitzuten... eta, tira, sagarrondo gehiago zegoen.

Egoera honi buelta eman zaio eta abeltzaintzari eman zaio lehentasuna; sagastiak abandonaturik geratu dira, nahiz eta azken urte hauetan berriro zaintzen hasiak diren. Etekin printzipala ez da sagastia; ikusirik zer lan ematen duen eta zer ordaintzen duten, ez dago etorkizunik.

Inguru honetan bueltatxoa egiten badugu, Hernani, Astigarraga eta Usurbilen barrena, berehala ohartuko gara zein sagasti gutxi dagoen, eta hori, ekoizpen handieneko gunea delarik.

Beste leku batzuetan zer dago, zuetako gutxiago?

Askos ere gutxiago, Goierrin gutxiago, Bizkaian ia batere ez, Araban eta Nafarroan ezer ere ez.

Lurak nolakoa izan behar du zuk itxura eder hori edukitzeko?

Lur eguzkitsua da egokia, zenbat eta ordekgoa orduan eta hobe, eta eguzkiak jo dezala. Iparraldera begira eta leku malkarrean jarritako sagastiak, toki laiotzean dagoenak, horrek seguru hondoa joko duela.

Beraz, garrantzitsuak dira eguzkia eta argitasuna?

Ezbairik gabe, polinizazioan kolore hobe ematen digulako, eta aukera gehiago dugulako, gainera, polinizatzeko. Eguzkiak goizetik arratsaldera ematen badigu, zuhaitzari ez zaio gerri inguruko azalean goroldiorik irtengo, likenak sartzen zaizkio bestela; goroldioa edo likena hazten zaie leku laiotzetan dauden sagarrondoei.

Ni bizi naizen baserri honetan, Zabalo-Enea baserrian, lurren %80 ona da, Euskal Herrian mendi artean dauden lekuak ez dira onak izaten, itzaltsuak baitira eta ez baita eguzkia sartzen.

“Liskarraren sagarra” greziar mitologian, eta bekatuaren bidea kristau mitologian... Hain fruta arriskutsua al zara?

Nik ez dut uste, gozamenerako bidea gehiago naizela uste dut, Afrodita eta Eba bezalako emakumeen aurrean, hala ere, bekatari izatea ez da harritzekoa, ezta?

